

TXIS-PUN

(DESENLAZEA)

Gune eskenikoa jatetxe bat da. Publikoa han hemenka sakabanaturiko mahaietan eseritzen hasten da.

Adineko gizon bat erdiko mahaiean esertzen da. Traje zahar bat darama, korbatarik gabe. Aulkiaren bizkarrean gabardina eta makila jartzen ditu. Erlojoari begiratzen dio, tarteka.

Publikoa leku bila dabil. Agureak bere mahaiean geratzen den toki librea defenditzen du, tinko baina adeitsu ere.

Agurea

(Ad lib.) Barkatu, okupatuta dago. (...)

Pertsona baten zain nago... (etab.)

Kamarero bat menu zerrenda banatzen hasten da mahaietan.

Kamareroa

Barkatu, jauna... (...) Jauna!

Agurea

Nor, ni?

Kamareroa

Inporta ez bazaizu, konpartituko zenuke zure mahaia beste bezeroekin?

Agurea

Alabaren zain nago. Hemen behar zuen honezkero, ez dakit zer gertatu zaion...

Kamareroa

Arazorik ez, leku bat gordeko dugu zure alabarentzat eta beste bi pertsona sartuko ditugu mahaiean.

Agurea

Hara... nahiago nuke alabarekin bakarrik egon.

Kamareroa

Kontu izan mahairik onena okupatu duzula, eta bi pertsona baino gehiago sartzen direla. Jende mordoa dago mahairik gabe.

Agurea

Sentitzen dut, benetan, baina bada urte bat alaba ikusten ez dudana eta... badakizu, lasai egon nahiko genuke, gure kontuetaz hitz egiteko.

Kamareroa

(Harrituta) Hitz egin?

Agurea

Nire urteak dira.

Kamareroa

Ba zorionak.

Agurea

Egia esan, atzo izan ziren, baina alabak ezin zuenez, gaur ospatuko dugu.

Kamareroa

Ongi da, mahaia zuentzat.

Agurea

Molestia handirik ez bada. Milesker, gaztea.

Kamareroa

(Bezeroei, menu zerrenda banatu ostean)
Gogoratu sarrera bat, plater nagusia eta postrea duzuela. Aukeratzen duzuen bitartean, aperitibo bat, etxeko eskaintza.

Kamareroak magia truko labur batzu egiten ditu mahaiz mahai.

Bitartean publikoak menua irakurtzen du.

"TARTUFO ETXEA"

Entremes psiko-fisikoak:

Farsa pantagruelikoa

Dialogo pikatua

Timbal kostumbrista

Pastoral arina belar finetara

Malabareen deseraikitzea entsaladan

Sarrera dramatikoak:

Drama ozpinezko sainetea malko finetara

Personaia kipula zuritzen, gonbitodun nausea existentzialistaren gainean

Askotariko azidoak trama hotz eta desenlaze beroekin

Konflikto sikoanalitikoaren brotxeta bere behazunean

Testu kontzeptualaren milorria sinopsiaren erredukzioarekin

Postre komikoak:

Esperpento gozoa ginda mingotsarekin

Keinuen pastela barre izoztuarekin

Mazedonia absurdua

Etxeko pantomima

Publikoak menua irakurri eta kamareroak bere numeroak egin bitartean, agurea kamareroari galdera bat egin nahiean dabil, bere giroan sentitzen ez denaren lotsarekin, eta arrakasta gutxirekin.

Agurea

(Ad lib.) Barkatu, kamareroa, ez dut ulertzen... (...) Gaztea! (...) Mesedez, azalduko zenidake... (...) Kamareroa! (...) Gaztea! (...)

Azkenean Kamareroak arreta egiten dio.

Kamareroa

Arazoren bat, jauna?

Agurea

Ez dut menu hau ulertzen. Ez al daukazu betiko gisatua? Edo menestra...?

Kamareroa

(Irriz) Fida zaitetz zure intuizioaz, eta ireki ateak sorpresari.

Agurea

Baina gauza asko ezin ditut mastekatu, hortzengatik...

Kamareroak irri nahasia egin eta erantzutera doa, andre gazte bat agertzen denean. Alaba, hogetamar urte inguruko emakumea.

Agurea

Maitea! Hemen!

Alaba hurbiltzen da. Agurea altzatzen da, nekez, musu emateko.

Agurea

Heldu zara azkenean!

Alaba

Trafikoa izugarri dago ordu honetan.

Agurea

Esan nizun lehenago geratzeko, nik egun osoa daukat libre.

Alaba

Baina hemen ordutegi bat dago.

Agurea

Beste nonbaitera joan gintezke, txurro batzu merendatzera, edo parkera... Kontua tartetxo bat elkarrekin egotea da.

Alaba

Hau gustatuko zaizu. Etortzeko gogoa nuen, aspalditik. Mundu guztia egon da jada, azkeneko tonta izateaz nekatuta nengoen.

Agurea

Txarrena hain berandu geratzea da. Hamarretan erresidentzian egon behar naiz.

Alabak ez dio kasurik egin. Menua irakurtzen ari da.

Alaba

Gogoko zerbait aurkitu duzu?

Agurea

Aukeratu zuk niretzat, nik ez... Zerbait arina, bestela kostako zait lokartzea gero...

Kamareroa sartzen da.

Kamareroa

(Libretarekin) Aukeratu duzue jada?

Alaba

Sarrera bi eskatu ditzaket, entremes eta sarrera ordez?

Kamareroa

Menua orekatua dago; bi sarrera dramatiko astunegiak izan daitezke.

Alaba

Dudatan nago. Eta okerrena da presaka gabiltzala.

Agurea

Nigmatik ez kez...

Kamareroa

Konpartitzea gomendatzen dizuet, horrela arinago serbitzatuko dizuegu.

Alaba

(Aitari) Ondo iruditzen konpartitzea?

Agurea

Zuk nahi duzuna, maitea.

Alaba

Ba orduan ekarriko diguzu... malabareen entsalada eta bigarrenerako... zer gomendatzen didazu?

Kamareroa

Gozoa dago dena. Konflikto trinkoak gustoko badituzu, askotariko azidoak oso gomendagarriak dira.

Alaba

Ez dakit ba, egun latza izan dut.

Kamareroa

Kasu horretan nik "Personaia kipula zuritzen gonbitodun nauseara" aukeratuko nuke.

Alaba

Nausea garaikidea da?

Kamareroa

Jakina.

Alaba

Ba orduan nausea biontzat. (Agureari) Ondo deritzozu?

Agurea

Zeuk nahi duzuna.

Kamareroa

Ederto. Postrea geroago eskatu dezakezue, ez baduzue Etxeko Pantomina eskatu behar. Makilaje zuriak bere denbora eskatzen du.

Alaba

Gero aukeratuko dugu, milesker. Eta asko eskatzea ez bada, arin ekarri, mesedez, nire aitak presa dauka.

Agurea

Lasai, moldatuko...

Kamareroa

Saiatuko gara. (Irteten denean, gainontzeko bezeroei) Segidan hartuko dizuet nota. (Irteten da) Malabare bat martxan!!

Off

Entzuna kamerinoan!!

Agurea

Beno, eta zer moduz? Nola doa dena?

Alaba

Askotariko azidoak eskatu behar nituen.

Agurea

Mutil horrekin jarraitzen duzu?

Alaba

Beti berdin. Eskatu eta berehala konturatzen naiz beste zerbait eskatu nahi nuela.

Agurea

Zer?

Alaba

Ez, ezer ez, barkatu. Zerbait galdetu didazu, ez?

Agurea

Bai.

Alaba

Beraz?

Agurea

Beraz, zer?

Alaba

Zer galdetu didazu?

Agurea

Ah! (...) Ez naiz gogoratzen.

Alaba

Hara...

Agurea

Buru hau...

Alaba

(Menu zerrendari begira) Gaizki eskatu dut.

Agurea

Nik uste dut ematen dizkidaten pastilla horiengatik dela.

Alaba

Aldatzeko eskatu beharko genioke.

Agurea

Eskatu nien, ba, baina ez zidaten kasurik egin.

Alaba

Kontua da ez dakidala zer eskatu...

Agurea

Ah, bai, mutil horri buruz galdetzen ari nintzen.

Alaba

(Menu zerrenda uzten) Beno, berdin dio. Ea sorprenditzen gaituzten.

Agurea

Zelan dago?

Alaba

Nor?

Agurea

Hori... Zure... Ez naiz izenaz akordatzen.

Alaba

Pista gehiago ematen ez badidazu...

Agurea

Buru hau...

Alaba

(Boltсотik mugikorra atereaz) Ahaztu gabe, ixildu mobila, hemen ezin da...

Agurea

Ze mobil...?

Alaba

Ah, ezer ez.

Alabak mobila ixiltzen du.

Agurea

Beno, ta zer kontatzen didazu? Ez dakizu nolako gogoia neukan...!

Kamareroa sartzen da, modu egokian apainduta.

Alaba

Ixo, entremesa dakarte.

Agureak bere musuzapia lotzen du paparrean eta mahai gainean kubiertoen bila hasten da.

Kamareroa haie aurrean kokatzen da.

Alaba

Zertan zabilta?

Agurea

Non daude?

Alaba

Nortzu?

Agurea

Kubiertoak.

Alaba

(Harrituta) Zer?

Agurea

Kub...

Alaba

Ixo!

Kamareroa

Ongi da. Malabareen deseraikitzea entsaladan. Baditu bere malabareak, maza eta pilotenak, bere puntuan deseraikiak eta neo-saltsarekin adobatuak.

Musika berezi bat entzuten dugularik, kamareroak malabareen ekitaldi kontzeptual egiten du, hau da, balizko maza eta pilotekin.

Agurea

Zertan dabil?

Alaba

Tsst...

Agurea

Entsaladarik ez dago?

Alaba

Ixo.

Agurea

Baina...

Alaba

Mesedez!

Agureak aretoko gainontzeko bezeroei begira geratzen da, ea besteren bat bera bezain deskonzertaturik ote dagoen. Gero menu zerrenda irakurtzen du berriro.

Agurea
Koño!

Alaba
Ixo!

Agurea
Orduan, ez dugu afaldu behar?

Alaba
Afaldu gabe etorri zara?

Agurea
Erresidentzian zazpiretan ipintzen digute,
bainma ni ez naiz joan.

Alaba
Baina nola bururatu zaizu ordu hauetan
afaldu gabe irtetzea?

Agurea
Zertan dabil?

Alaba
Ez duzu ikusten? Malabareak egiten.

Agurea
Ea pilotak?

Alaba
Deseraikiak. Ixo!

Kamareroak ekitaldia bukatu eta badoa.

Alaba
Eta badago?

Agurea
Hala ematen du.

Alaba
Dezepzionantea. Dezepzionantea benetan, ez
duzu uste?

Agurea
Ez dakit.

Alaba
Joder desereikitzearekin. Aitzaki galanta
malabareak egiten ez ikasteko. Nik aste
osoan kotxe puta bat saltzen ez badut,
nagusiari "ez dut kotxe puta bat saldu"
esaten diot. Ez diot esaten "Desereikitako
hamabi familiar saldu ditut. Hemen dituzu
faktura desereikiak."

Agurea
Orain kotxeak saltzen dituzu?

Alaba
Ea zer jartzen diguten bigarrenerako.

Agurea
Ez zeuden ba aseguruaren kontuarekin?

Alaba

Egia esan, honelako zerbait susmatzen nuen.

Agurea

Aseguruekin jarraitzen zenuela uste nuen.

Alaba

Esnobismo gehiegi dago.

Agurea

Hori egiten zenuen egon ginen azken aldian.

Alaba

Ea ez ote diren gehiegi luzatzen, presaka bazaude...

Agurea

Ez, ba, berandu iristen banaiz ere irekiko didate. Ez naute ba gau oxoan botata utziko! Beno, eta zer kontatzen didazu? Mutil horrekin jarraitzen duzu?

Alaba

Hor datoz bigarrenarekin.

Agurea

Nola zuen izena...?

Alaba

Tsst!!

Kamareroa sartzen da, egokiro apaingurik.

Kamareroa

Personaia kipula zuritzen, gonbitodun nausea existentzialistaren gainean: dakar konfliktu psikologikoa, segurtasunik-eza eta antsietatearekin...

Alaba

Niri antsietateak kalte egin ohi dit.

Kamareroa

Hau oso freskoa dago. Gutxiagotasun-komplexu pixka bat ere dauka.

Alaba

Komplexua nongoa...?

Kamareroa

Bertokoa. Gonbitoa, berriz, frustrazio eta etsipenaz alinaturik dago.

Alaba

Ongi.

Kamareroa

Goazen ba.

Kamareroa, geldi, jarrera etsi xumearekin, kipula bat zuritzen hasten da. Lantzean behin, entonazio berezirik gabe, esaten du...

Kamareroa

Atsekabea... Atsekabea...

Agurea

Hara! (Alabari, ahozpez) Zer du?

Alaba

Tssst!

Agureak publikoari begiratzen dio berriro, erantzun eske.

Kamareroa

Atsekabea...

Alaba

(Bere kolkorako) Damutzen hasita nago.

Agurea

Zer gertatzen zaio?

Alaba

(Bere kolkorako) Bukatu kipula puta hori zuritzen behingoz, sutan jartzen ari naiz eta.

Agurea

Etzazu hori esan, ez al duzu ikusten txarto dagoela?

Alaba

(Boz goraz) Beno, nahikoa dugu!

Kamareroa izaturik.

Kamareroa

Zer gertatzen da, andrea?

Alaba

Hori da arazoa, ez dela ezer gertatzen. Ez duzu ezer gehiago egin behar, ditxosozko kipula zuritzeaz aparte?

Kamareroa

(Deskonzertaturik) Ekitaldiak dauka...

Alaba

Badakit ekitaldiak daukana, baina ordaindu behar dugun dirutzaren truke, hau baino zerbait gehiago eskeini beharko zeniguelarik, ez duzu uste?

Agurea

Utziozu, emakumea, kontua elkarrekin egotea da eta...

Kamareroa

Ez ba zaizu hau gustatzen, beste zeozer ekarriko dizut.

Alaba

Datorrela arduraduna.

Agurea

Lasai, alaba...

Kamareroa

Arduraduna lanpetuta dago, eskari asko daukagu...

Alaba

Kobratzen duzuenarekin bezeroak atenditzeko lana har dezakeela uste dut.

Kamareroa

Ongi da, galdetu egingo diot. Barkatu.

Kamareroa badoa.

Agurea

Ez zaitez liatu, niri berdin dit. Ni konformatzen naiz...

Alaba

Ahoa betetzen zaie denei toki hau goraiatzeko: "Onena" "Flipatuko duzu"... Ba bai, flipatzen nago.

Agurea

Eta lan berri hau, bestea baino hobea da?

Alaba

Joder nire lagunak! Ez nuen uste hain errez engainatzekoak zirenik.

Agurea

Zuk nahita utzi zenuen ala aseguru etxetik bota zintuzten?

Alaba

Ni bakarra ote naiz ba, autopistan kontrako karriletik noana?

Ixilunea.

Agurea

Beno, behintzat lana baduzu...

Kamareroa dator.

Kamareroa

Segidan dator.

Alaba

Milesker.

Agurea

Ez zaitez luzatu. Esan beharrekoa esan, eta pagatu behar dena pagatzen dugu. Nik konbidatzen dut.

Alaba

Ah, ez, nik ordainduko dut, hau nire ideia izan da.

Agurea

Nik ez daukat gasturik! Utzidazu ordaintzen, nire urteak izan dira ta.

Alaba

(Orain arte zoriondu ez duela gogoratu, lotsaturik) Zorionak. Barkatu, sutan jarri naute eta...

Agurea

Urduri ikusten zaitut. Arazoren bat?

Alaba

Eh?

Agurea

Etxe horretan jaraitzen duzu?

Alaba

Bai.

Agurea

Mutil horrekin? Nola du izena...?

Alaba

Ez. Jada ez.

Agurea

Hara... Ez da ona bakarrik egotea, umea, ez da ona.

Alaba

(Deseroso) Kendu jaka hori. Ez duzu berorik?

Agurea

Ez, ongi nago. Bakarrik...

Alaba

Zer?

Agurea

(Lotsaturik) Larri naiz...

Alaba

Nola?

Agurea

Badakizu...

Alaba

Txiza egin nahi duzu?

Agurea

(Ingurura begiratu) Tsst!! Oraindik aguanta dezaket, baina...

Alaba

Zertarako aguantatu? Joan orain.

Agurea

Baina komunak behean daude, eta eskilarak ez dauka barandarik...

Alaba

Ah! Lagunduko dizut. Orain?

Agurea

Ez dago presarik, baina orain gero baino hobe.

Altzatzen hasten dira. Alabak aitari laguntzen dio. Hartan, Arduraduna agertzen da.

Arduraduna

Kaixo. Nirekin hitz egin nahi duzue, ez?

Alabak aita utzi eta esertzen da. Agurea ere, etsiturik, esertzen da geroxeago.

Hemendik aurrera ixilik egongo da. Txiza larriari nola edo hala eutsiko dio isilean, gero eta larriago.

Alaba

Bai.

Arduraduna

Ez zaizue gure eskeintza gustatu?

Alaba

Argi esango dizut: teatro molde berri hau estanpatxoaren iruzurra da.

Arduraduna

Gusto kontuak dira.

Alaba

Zuk hau egunero kontsumitzen duzu?

Arduraduna

(Irriz) Dieta anitza jarraitzen dut. Inpiz ere (begikeiñu batez) telezaborra kapritxoren bat ere hartzen du. Hemen eskeintzen duguna ez da egunero hartzeko.

Alaba

Hori seguru. Gosez hilko ginateke.

Arduraduna

Kantitate eskasa dela uste duzu?

Alaba

Kantitatearena ez da okerrena, baina bai. Dirutza bat ordaintzea hutsik bukatzeko... Gogoa ematen du betiko antzoki batera joateko, dramatzar bat irenstera. Edo komedia on bat, bere planteamendu, bere korapilo, bere desenlazearekin.

Arduraduna

Ez dugu ezer teatro mota horren aurka, baina hemen beste zerbait ematen dugu.

Alaba

Bai, airea, hutsa... Ezereza.

Arduraduna

Ezereza gai teatral handia da, baina gu apalagoak gara. Txikitasuna bilatzen dugu, besterik gabe.

Alaba

Horretan bete betean asmatu duzue.

Arduraduna

Detaile xumeak, ehundura leunak, nabardura izkutuenak...

Alaba

Bla, bla, ba...

Arduraduna

Gure teatroak zentzumenak estimulatzen ditu, inguruan gertatzen den sufrimentu egunerokoaz ohar gaitezen.

Alaba

Pedagogia merkea.

Bitartean, Agurea ixilik sufritzen ari da.

Arduraduna

Betiko dramaren bila etorri bazara, okerreko lekura etorri zara.

Alaba

Berrikuntzetara irekita nago. Baina ezin gara hutsetik hasi. Teatroak milaka urteko jakinduria batzen du, eta harrokeria da dena baztertzea. Abangoardiak ez du oinarria ahaztu behar: akzioa, konfliktoa, helburuak... Asmo bat ageri behar da, eta batez ere, zerbait gertatu behar da, joder! Kipularen kontu horretan... ez zen ezer gertatzen!!

Arduraduna

Ez nago ados.

Alaba

Eta zer gertatzen zen bada?

Arduraduna

Tamalez, Kamareroak ez du ekitaldia bukatzerik izan, baina pertsonaia negarrez hastekoa zen.

Alaba

Negarrez?

Arduraduna

Bai.

Alaba

Kipulagatik?

Arduraduna

(Irriz) Beno, horra ironia dramatikoa.
Umore ikutu xume bat dramaen erdian.

Alaba

Bai, barrez lehertzeko modukoa. Eta
kipularenaz aparte, zergatik egin behar
zuen negar, asko galdetzea ez bada?

Arduraduna

Galdetu dezakezu. Baina ezin dizut
erantzun.

Alaba

Ez duzu zuk zeuk sortu istorio hau?

Arduraduna

Baina ez naiz bere patuaren jabea. Ikusle
bakoitzak erabaki behar du zergatik ari.

Alaba

Besteek egin dezatela lana zure ordez.

Arduraduna

Ez. Errealitatera hurbildu nahi dugu.

Alaba

Errealitatera hurbildu? Hau bai ona!

Arduraduna

Zuk, bizitzan, ondokoen sufrimendu, negar
edo tristuraren arrazoi guuztiak ezagutzen
dituzu?

Alaba

Beno...

Arduraduna

Kartel bat daramagu paparreetik zintzilik,
esanez "hau edo beste hau gertatzen zait"?

Bitartean, Agureak sufritzen jaraitzen du isilean, gero eta
txizalarri handiagoz, nahiz eta lotsagatik oharkabean
pasatu nahi duen.

Alaba

Ez.

Arduraduna

Teatro konbentzionalak ekintzak ordenatu egiten ditu, zuk aipatu dituzun konflikto eta asmoak antolatzen ditu, ikusleak lanik hartu gabe digeritu ahal izateko. Baina bizitzan ez da hori gertatzen. Dialogoak eten eta desbideratu egiten dira, nahastu, bukatu, bukatu direnik erreparatu gabe. Nor beraren helburuak lausoak dira, eta arrazoi argirik gabe aldatzen dira. Ez dago asmorik gure ekintzetan, ez dago xederik geure bizitzan, dena kaotikoa da, ez dago kausalitaterik, ez dago "jainko-dramaturgo"-rik. Ondo pentsatzen baduzu, gure proposamenak "teatro errealista" baino erreala goak dira.

Alaba

Baina teatroak ez du errealitatea imitatzen, sublimatu egin behar du, esentzia bilatu.

Arduraduna

Eta kipularen proposamenean, esentzia pertsonaiaren sufrimendu isila da. Ikusleari eskeintzen diogun jokoa horixe da, isilpeko sufrimendu hori nondik ote datorren.

Arduraduna, agurearen ondoan jartzen da, lepoan eskua jartzen dio.

Arduraduna

Ikuslearen enpatiarako gaitasuna aktibatzea da helburua. Ohartaraztea hor dagoela pertsonaia, arreta, maitasuna, errespetua eskatzen. Azpittestuaren garrantzia haintzat hartu behar da. Ulertzen zertaz ari naizen?

Alaba

Norekin ari zarela uste duzu? Azpittestuak eskenan benetan gertatzen dena islatzen du, berbaroaren azpian.

Arduraduna

Horixe. Nire teatroan azpittestua da errege; testua basailu xume bat.

Alaba

Oso polita, baina... Zein da kipularen istorioaren amaiera?

Hartan, Agurea erlajatu egiten da. Amore eman eta azkenean bere larria arindu du. Bere larri fisikoa, alegia. Orain beste larritasun mota batek txundituta dago, gaixoa.

Arduraduna

Ez du amaierarik.

Alaba

Ez da bukatzen?

Arduraduna

Horixe bukatzen dena, bost minutuko iraupena dauka, baina ez dauka amaierarik, zuk ulertzen duzun moduan behintzat.

Alaba

Nola?

Arduraduna

Istoria pertsonaia joaten denean bukatzen da.

Alaba

Besterik gabe?

Arduraduna

Besterik gabe.

Alaba

Etsigarria.

Arduraduna

Zergatik?

Alaba

Amaiera istorioaren muina da.

Arduraduna

Amaiera sobera baloratzen duzu.

Alaba

Amaierak egilearen asmoa argitu eta definitzen du. Aristotelesek argi utzi zuen amaiera ustekabekoa eta ezinbestekoa izan behar dela aldi berean. Ustekabekoa, ikusleak aurreikus ez dezan; eta ezinbestekoa, gertatzen denean konturatzen garelako horrela bukatu behar zuela, eta ez beste modu batean. Ez dago istorio onik amaiera onik gabe.

Arduraduna

Zergatik? Zure bizitzako gertaerek amaiera dute? Amaiera zehatz bat izan du, demagun, zure lehenengo maitemintzea, inoiz izan baduzu?

Alaba

Izan dut, bai...

Arduraduna

Eta noiz amaitu zen? Noiz entzun zenuen "Txis-pun"-a? Ezabatu da zeharo zure memorian? Zure bizitzan eragina izateari utzi dio erabat? Zure eguneroko konfliktoak, dramak... bukatzen al dira inoiz behin betirako? Ez duzu uste bizi ditugun trauma, pozaldi, nahigabe, frustrazio guztien zama hil arteraino ganean daramagula? Heriotza, hori da benetako amaiera bakarra, txis-pun behin betirakoa. Beste guztia continuum bat da.

Alaba

Hitzak. Nahi duzuna esango duzu, baina kipularen eskena horretan ez da ezer gertatu. Eta ezer gertatzen ez denean, ezerk ez zaitu hunkitzen, ezer ez zaizu interesatzen.

Arduraduna

Buelta pare bat emango diot horri.

Alaba

Dena den, hizketaldi interesgarria izan da. Ez nauzu konbentzitu, baina interesgarria izan da.

Arduraduna

Pozten naiz. Ea bide batez... Postrerik hartuko duzue?

Alaba

Uff! Ez dakit nik, ba...

Arduraduna

(Konfidentzial) Nahi baduzu, eskeintza konbentzionalago bat daukagu.

Alaba

(Ironiaz) Ondo gordeta zenuen.

Arduraduna

(Id.) Bezeroak beti dauka arrazoia. Guretzako prestatzen dugun zerbait eskeini ahal dizut. Kamerinoetan kontsumitzen duguna. Taburete ea mikrofonoko monologo bat. On egin dizuela. Eta milesker etortzeagatik.

Alaba

Milesker zuri. Oso atsegina.

Arduraduna

Garzon!

Kamareroa

Bai.

Arduraduna
Ezkontzaren monologoa.

Kamareroa
Baina... Hemen?

Arduraduna
Bai...

Arduraduna badoa.

Agurea isilik dago, burumakur, lotsaturik.

Alaba
(Agureari) Hitz asko baina hauei ere betiko
katxondeoa da gustatzen zaiena.

Kamareroa mahaira hurbiltzen da taburete batekin.

Kamareroa
Izorratuta nago. Ezkontza baterako konbitea
jaso dut. Ala, dirutza bat gastatzera!
Ikustekoa da ezkontzetan egoten den
desparramea! Batez ere emakumeak, karamelu
paketez mozorrotzen direnean! Eta zer
iruditzen eraman ohi duten boltso ziztrin
hori? Txirla metaliko bat ematen...

Hitzik esan gabe, Agurea altxatzen da, aulkia nahi gabe
lurrera boteaz. Kamareroa isiltzen da. Alaba begira
geratzen zaio. Isilune bat sortzen da.

Alaba
Zer duzu?

Agureak ez dio ezer. Gabardina hartzen du, disimuloan
bustitako anktartea izkutatzeko. Makila ere hartzen du.
Kanporuntz doa.

Alaba
Baina nora zoaz?

Agurea ateraino iristen da, isilean. Buelta ematen du.

Alaba
Aita... zerbait gertatu al da?

Ixilune luze baten ostean.

Agurea
Ezer ez. Ez da ezer gertatu.

Agurea atetik irteten da.

Handik gutxira atea erdirekitzen du.

Agurea

Txis-pum.

Berriro ixten du, kolpe sendo batez.

amaiera

PATXO TELLERIA